

Xipri-ri txalo

TXILLARDEGI



«ESPAINOL» deitu gaitu, eta egia osoa du. Eta egia duelaiko nire txalo bihozkor hau.

Abantailu batzuek baditu zahar-zakeak (batzuek bederen!). Eta hauxe izan daitezke nabarmenena: gazteagoak irakurketaz ikasi behar dituzten gertakariak, guk geure oroimenaren zolan aurkitu ohi ditugula.

Franco-rekiko gerla amaitzean zenean, guk, garai hartako haurrok, Fraitziako mapa marrazten genuen Ondarretan, mendiak eta gutzi; eta, kanikaz, «Tour»-a eginen genuen. Eta, gure koadrilan ongi oroitzen naizenean, bata Bartali zen, bestea Vietno, bestea Sylvère Maës, eta abar. Egia esan, ez dut uste guretako inork Lapébie-ren izena hautatu zuenik. Baina Lapébie ezagutzen genuen, noski.

Urteak joan eta urteak jin, eta horra ni 1965an Brusel-en gertatu. Gara du Nord-en inguruko etxe batean; eta, egunero egunero, Maës anaien taberna ondotik pasa behar. Hantxe zegoen atalgainean letrero argitua, bere txirriindua eta gutzi... Hogeita-hamar urte joanak, baina oroitzapena tinko nigan.

Eta beranduago, Belgika-tik itzultzean, Bordalen gertatu, Unibertsitatean (Marcellin-ek besterik erabaki arte!); eta askotan kaferara joaten arratsarean, eta, aurrez aurre, Lapébie txirriindulari famatuaren jaxteko dotorea... Nire oroimenak desberdintzen ez banau, hantxe jakin nuen Lapébie ospetsua bai nesa zela... deserriturik bizi zen abertzale baten ahotik.

Gero, askoz ere beranduago, borroka politikoan sartua nintzelarik, eta «abertzale»-rik gienek Bahamontes-en aurrean beren erai espainolik erakusten zituzeanean, guk, lau katuk, orduan ere abertzale ofizialek arbutaturik, jo-ta-ke Kehilla zuberotar aberkidearen alde. Idatzi ere egin nuen honetaz isileko aldikari haiekotakoren batean... Hartu ote zuen ifork aintzakotzat? Ez dakit.

Baina muga hor zegoen, eta hor dago, tinko. Mila esker aintz Xipri!

Oporretako lanak

PIARRRES XARRITON



«OPORRETAKO lanak» emaiten zizkiguten haurrak ginelarik. Aitoritu behar dut lan horiek ez ditudala behinere biziki gogoko izan —ez enetako, ez bestendako—. Ahal guzietz ihes egiten nien. Ohartzten naiz bada, nahiz hezkuntz ohiturek itzuli hainitz egin duten urtetan, gure haurren «oporretako lanak» badirautea.

Horra zergatik «oporretako lanak» bat proposatzen didan hemen orai, ez ordea gure haur eta ikasleei, haien irakasle batzuei baizik:

— 1-ik eta bat, Iparralde honetan «baturantz» doazen borondate oneko eskualde batzuei oroitza nahi diet, euskal ortografi baturan «alabain» idazten dugula eta ez «Halabain» nehondik ere. Eta bestalde morfologian «deute» gipuzkoako forma dela, «dicute» aldi lapurdikoa eta ere batzuk hautatu forma, baina «dute» euskarrik ez dakien norbaitek amaitu mamu bat besterik ez dela.

— 2-tik, nere leku berean idazten duen Hegoaldeko Jexuxmani irakasleari eska niezaioke, nik ere asko maite ditudan forma alokutiboak eta oraino hain batean Iparraldekoak zaindu ditugunak, erabili nahi dituelarik erabili dituzan perpas bakunetan eta nausietan, ez menperatuz eta berezik sekulan ez bait-ekin. Piarrres Lafitte zenak emaiten digu adibide hau: «Ez omen duk behi esnedunagorik nola baita —ez baituk— holandesa.

Diario 16 Gartzela beroak

Herri honetan, pertsona bat gartzelara doanean, kondena bi-koitza bete beharra dauka: alde batetik ezarritako zigorra, eta bestetik, baldintza gogorretan bizi, askotan arrisku handiko egoerek bizitza berarekin ordain erazten diotenak. Beste hitzetan esanda, Espainiako gartzelarik agintariak ez dute bermatzen, beraien obligazioa izanik ere, espetxeratuaren duintasuna, beharrezkoa, egindako delitua oso larria izan arren, eta ezta presoaren bizitza bera ere.

CARLOS PEREZ URALDE / 1991-VIII-2

EDITORIALA / 1991-VIII-2

DEIA Banaketa

Ez da beharrezkoa oso pesimista izatea ulertzeko, lider estatubatuarra eta sovietarra orain eztabaidatzen ari direna Lurra planetaren banaketa dela, gerra hotza amaitu ondoren, burki-deetako bat ez agertzeagatik.

Diario de Navarra Radiografia bidai baten ostean

Hain zuzen ere, euskal alderdi demokratikoak Ajuria Eneako Paktua sinatu dute, akordio politiko garrantzitsua, teorikoki demokratik ez direnak isolatzen dituelarik. Hala ere, ez da garai



By HENG in Lushan Zaohe (Singapore)

Tira, nork egingo dio orain ahoz ahoka? HENG / HERALD TRIBUNE / 91-VII-31

gordetzeko paktu horrek pitza-dura handiak dituela: EAK hitzez HBrekin lehiatzen du, baina, noski, ez ukitu arren biolentziaren mugak, erreegen bi-daiaren aurka agertu da: eta PSOE bera HBrekin jolastu nahian dabil Nafarroan, Komunitate autonomo horretako Gobernu eskuratzeko.

(...)
Erreegek Euskadira egindako bidaiek balio izan du erakusteko, Euskadi oso urrun dagoela oraindik normalizaziotik. Horrek pentsarazi behar lieke hiritarrei berei, harrapatuta daudela irain, bazterkeria eta heriotzaren giro itogarri horretan.
ANTONIO PAPELL / 1991-VIII-2

ZUZENDARIARI

Leicestershire Schools Symphony Orkestrari egin genion harrera kaskarra.

Zuen EGUNKARIAN irakuri ondoren abiatu nintzen Errederiara atzo, Uztailak 26, goian aipaturiko orkestra entzun asmoz. Egitarauan Dvorak, Lalo, Strauss eta Liszt.

Arratsaldeko 7.30etan hasitekoa zen saioa. Ateak 7.20 pasatxo ireki zituzten. Barruratu eta akustika nolokoa izango ote zen galdetu nion neure buruari. Kristal eta burdin askotako, aukeran. Motor batek egiten zuten burrundatxo, behintzat, gera eraziko al zuten musika saio garaian.

Lehen momentuko 100/120 entzule lagunuen taldea pixkanaka pixkanaka osatuz joan zen. Musikaldia hastean 200ren bat lagun izango ginen, hor nobait.

Orkestrako gazteek, 70/75 inguru, galaz jantziarik, bikain ekin zituen euren lanari. Lehenekin, Dvoraken «Camivaleko Obertura». Hura amaitu orduko 8/10 lagunek altxa eta hanka egin zuten entzuleen artean. Bigarren interpretazioa bukatu baino, beste hainbestek. Horrela hirugarren, laugarren...

Tartean Stuart Johnson, bi-bolin bakarlarik jo zuen moduan entzun eta gero, ez ginen harritu Royal Philharmonic orkestrako kidea izan dela jakitean.

Azkeneko jokaldia hasi zenean entzuten geundenok nahiko lan izango genuen josten zeudenen kopuruaren bi-koitza osatzen. Haien aldetik gauzak borobilago izateko jaso genituen bi programen artean bata (ederrena, handiena eta zehatzena), Leicester bertako imprimategi batean egina zuten, euskaraz eta gaztelerez, txukun asko.

Giro hotza, jende gutxi, (zegoen pittina bakanzen zihoa-larik, gainera), akustika nolobaitokoa izanik, aipatu burrundatxo etengabe... nahiko lotsa eta pena sentitu nituen.

Bienako Nazioarteko Gazteria eta Musika Jaialdian Orkestra Gazteen atalean lehenengo saria eta Orotarikoko Orkestra Hoberearen sari berezia lortuak, mereti zuten besterik. Italian ez-erik, Frantzia, Alemanian, Belgika, Holandan, Jugoslavian... hainbat lekutan txalotu duten orkestrak mereti zuten, bai, giro hobeeagorik, gogotasan aipurtu bat.

Duela bizpahiru hilabete Nafarroako emakume konposatzaile baten ohoretan Mexikotik korua ekarri zuten Oretara. Mexikarrek ingeles maila musikala ez izanik ere, aisekina izan zuten saioa: Elizan, isiltasun osoan, jende as-

ko, txalo beroak. Inglesek toki ezaproposa, isiltasun eza, jende gutxi, joaldi bakoitza bukatu orduko 8/10 lagun kanpora, txalo epelek (ezin beroak izan, jotzaileak baino lagun gutxi batzuk gehiago izanik).

Halakoa izan zen sentitu nuen lotsa, non erabaki bait nuen bukatzerakoan Zuzendari jaunari barkamena eskatzea. Bere galdera egin nion interprete gazte bati (mutikoa, egia esan).

— «Bi minutu besterik ez dizkioit kenduko», esan nion.

Lagunei galdetu zien. Bai, hemen inguruan dabil. Ondoko gelara lagundu ninduen, goxoki. Hurrengo, goiko solairura. «Hemen nonbaitean behar du izan, ba...»

— Uztazu, zera besterik ez nion komentatu nahi. Lotsaturik nagola izan dituzten jotze baldintzekin. Nire burua besterik ordezkatzen ez badut ere, esan mesedez, barkamena eskatzen diodala (dizuedala) eta zoragarria izan dela eman diguzuen interpretazioa. Toki aproposago mereti zenutela, ene irudiko, isiltasuna eta jende gehiago, beste giro bat...»

Mutikoak, besapean txeloa, kopetan tristura:

«Bai, esango diot... (Yes, I'll tell him...).

Mereti zuten besterik gure adiskide ingelesek.

J.A. AZPIROTZ DONOSTIA

PERTSONAIA



Yitzhak Shamir

Arabiarren artean beti nahi duan bezala habil James Bakerrekin hitzegitean mokoa mugitzen abil lurrak ebatsi eta horren truk palestinar ugari hil gaur arte egin duanagatik epaituko haute Shamir

KOLDO ALDABE

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDA

Zuzendariordeak: NEREA AZURMENDI

Kontseilari Ordezkaria: JOXE MEL ZUMALABE

LUZIAN ETXEZAHARRETA INAKI URUA

Gereenta: INMA GOMILA

Publizitatea: KORNELIO ROTETA



Batzorde Parekidetza: 72564 E Lege Gordailua: SS 80090

HELBIDEAK

Egoitza soziala, Pulizitate eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruña / ☎ 17 80 78 / 79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurd / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2. Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 / 75 / Faxa: 59 25 75 11